



TXISPAREN AMETSA

Bazen behin Ostadar izeneko herrixka bat. Harrizko etxe politak zeuden bertan, eta ekilore-soro ederrak.

Ekilore haien artean, bazen bat bereziki eskuzabala: Txispa zuen izena. Eta Txispari asko gustatzen zitzaion irakurtzea.

Bere ametsik handiena egunen batean bidaia bat egitea zen, liburuetan agertzen ziren lekuak ezagutu ahal izateko. Baina hori ezinezkoa zen, Txispa landare bat zelako, eta landareak ezin direlako lekuz mugitu.

Hala eta guztiz ere, guk guztiok magikoa den ezaugarri bat daukagu gure barruan: irudimena. Eta, hain zuzen ere irudimenari esker, mundu osoan barna ibiltzen zen Txispa.

Uda hasten zen egunean bertan, Loreen Jaialdia ospatzen zuten Ostadar herrixkan. Ekilore guztiak apain-apain jartzen ziren eta dantzak entseatzen aritzen ziren.

Txispari asko gustatzen zitzaion dantza egitea, baina kontu handiz dantzatzen zen beti:

—Ez nuke nahi nire haziak erortzerik, beharbada norbaitek haien beharra izango du eta.

—Ze eskuzabala zaren, Txispa! Besteei lagundu nahian ibiltzen zara beti! —esaten zioten.

Behin batean, jaialdia amaitu zenean, iluntzean, oso urrutitik zetorren antzara talde bat Ostadar herrixkaren gainetik igaro zen. Antzara haietako bat Fito zen.

Ordu asko zeramatzaten etengabe hegan, eta Fito neka-neka eginda zegoen. Oharkabean, lokartu egin zen hegoan zihoala, eta pixkanaka-pixkanaka erortzen hasi zen. Halako batean, buuuuun!, zuhaitz baten adarren kontra jo, eta Txisparen ondora erori zen!

—Aaaaa! Zer gertatu zait? Non nago?

—Lasai, txiki —esan zion Txispak—. Ondo al zaude? Minik hartu duzu?

Fitok hego bat apurtu zuen, eta horrela ezin zuen bidaia jarraitu.

—Nekatuta nengoenez, gero eta polikiago joan naiz hegan egiten, eta taldeko azkena gelditu naiz. Segur aski inork ez nau erortzen ikusi, eta uda amaitu arte ezin izango dute nire bila etorri. Oso kezkatuta egongo dira!

—Zaude lasai. Mezu bat bidaliko diegu hemendik igaroko den hurrengo antzara taldearekin, ondo zaudela jakin dezaten. Hegoa sendatzen zaizun arte, nirekin egongo zara eta nik zainduko zaitut —esan zion Txispak.

Fitok uda osoa igaro zuen Ostadar herrixkan. Fito mundu osoan barna ibili zenez, han-hemenka ikusitakoak kontatzen zizkion Txispari, eta Txispa aho-zabalik egoten zen Fitoren kontuak entzuten.



IPUINA

Uda amaitu zenerako, sendatu egin zen Fitoren hegoa, eta Ostadarretik joateko ordua iritsi zitzaion. Fitori ideia paregabe bat bururatu zitzaion. Sorpresa ederra emango zion Txispari! Hurrengo egunean, antzara pila bat etorri zen hegan, eta eskerrak eman zizkioten Txispari, hain eskuzabala izateagatik eta Fito hain ondo zaintzeagatik.

Txispa oso pozik zegoen, Fito berriro bere taldearekin elkartzera zihoalako, baina triste ere bazegoen, utzi egingo ziotelako elkarrekin egoteari.

Orduan, Fitok esan zion:

—Txispa, ez egon triste. Nirekin bidaiatuko duzu, eta nahi dituzun leku guztiak ezagutuko dituzu.

—Bidaiatu egingo dudala? Baina, Fito, ni ezin naiz hemendik inora joan. Ekilore bat naiz.

—Baina bidaiatzeko modu asko daude, Txispa. Uda guztian nire elikagai izan diren haziak dauzkazu zuk.

—Haziak?

—Bai. Nirekin eramango ditut, eta hegan noanean hainbat lekutan askatuko ditut. Horrela, leku horietan zu bezalako ekiloreak jaioko dira, eta zure ametsa bete egingo da. Gainera, animalia askori elikatzen lagunduko diezu.

Txispa pozez zorutzen zegoen. Eskuzabala izan zen, beharrean zegoen antzarari lagundu ziolako, eta beti gogoan izaten zituelako bestiak. Horregatik, azkenean, iritsi zen bere ametsa beteko zen eguna.

